

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Van Goghen belarriaren misterioa

ARLES (FRANTZIA), 1888KO ABENDUAREN 23A. Vincent Van Gogh eta Paul Gauguin margolariak liskarra izan zuten eta, ustez, Van Goghek labanaz mehatxatu zuen Gauguin. Eztabaidak Van Goghen gaixotasun mentalaren krisialdia larriagotu zuen eta, urte hartako maiatzean alokatutako Etxe Horira itzuli zenean, ezkerreko belarria moztu zuen (zenbaiten arabera ez zuen belarri osoa moztu, belarri-gingila baizik). Trenkatutako organoa zapi batean bildu zuen, gogokoen zuen putetxera joan zen eta "oparia" Rachel izeneko prostituta bati eskaini zion. Gero, atzera Etxe Horira itzuli eta konortea galdu zuen. Ondorioz, bi hilabetez Van Goghekin bizi ondoren, Gauguinek Etxe Horitik eta Arlesetik alde egin zuen, Parisera.

Horixe da orain arte onartu den bertsioa. Baina berriki, Hans Kaufmann eta Rita Wildgans alemaniar historialariek hipotesi harrigarria zabaldu dute: Gauguenek moztu zion belarria lagunari. Historialarien esanetan, Gauguin ezpatari trebea zen eta Arleseko putetxe baten atarian izan zuten eztabaida Van Goghen belarria sablez moztuta amaitu omen zuen.

Bi margolariak gertaera isilpean gordetzea erabaki omen zuten. Gauguinek, noski, ez zuen kartzelan amaitu nahi; Van Gogh zaurituak, aldiz, ez zuen nahi Gauguinek Arlesetik alde egiterik eta, Gauguin salatuz gero, aukera guztiak galduko lituzke. Azkenean, Gauguinek faltsuki jokatu zuen, ez zuen keinua kontuan hartu eta berehala joan zen Parisera, beti ere historialari alemaniarren arabera.

Ondorio horretara iristeko, Kaufmann eta Wildgans hamar urtez aritu dira polizia ikerke-



Ezkerrean, Vincent Van Goghen autorretratu bat, belarri zauritua bendatuta duela. Azpian, Paul Gauguinen autorretratuak.



tak, testigantzak eta artisten gutunak aztertzen. Baina teoria berria egiaztatzeko froga garbirik ez dute eta, horregatik, zuhurtziaz aurkeztu dute ikerlanaren emaitza. Gainera, Amsterdameko Van Gogh Museoko kontserbatzaileek lehengo teoriaren aldekoak direla berretsi dute, Van Goghek berak moztu zuela belarria, alegia.

Dena den, historialari bikoteak ikerketa *Van Gogh's ear: Paul Gauguin and the pact of silence* liburuan argitaratu du. Eta, besteak beste, Van Goghen gaixotasun mentala pintura intoxikazioak eragin zuela diote liburuan. Arazo horri AIP deritzo (Acute Intermittent Porphyria).

Eta osasun mentalaz ari garela, zerk bulztatu ditu bi historialariak halako gertaera anekdotiko bat aztertzeko hamar urtetako ahalegina egitera?

Arrastoak

Hohle Felseko venusak



TAMAINA TXIKIA baina garrantzia handia du 2008ko irailean Alemaniako Hohle Fels kobazuloan aurkitu zuten venusak. Sei zentimetro baino ez du neurtzen, baina 40.000 urte inguru ditu, orain arte landutako lehen giza iruditatzat jotzen zen Willendorffeko Venusak baino 10.000 gehiago. Horrenbestez, mamut hor-

tzaren boliz egindako piezak gaur arteko teoria zalantzan jarri du, duela 40.000 urte giza irudirik zizelkatzen ez zela uste baitzen. Estatuatoxoaren helburu zehatza zein den jakin ez arren, gainerako venusak bezala emankortasunari lotuta dagoela uste dute adituek, irudian bulba eta bularrak nabarmentzen baitira.